TOLOSAKO UDALA

## AZAROAK 25, INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

Duela aste batzuk, Zarautzen gertatutako beste hilketa matxista baten berri izan genuen. Erailketa honek berriz ere mahai gainean jarri du indarkeria matxista lehen mailako arazoa dela gure gizartean. Bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar, eta gazteen artean, sareetako indarkeria kasuak etengabe ari dira gora egiten. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa da hori. Analisi feministak azpimarratzen du sexu-generoa sistemaren egiturazko desparekotasunetan duela jatorria, eta botere-harreman sakon horrek bizitzaren esparru eta alderdi guztietan duela eragina.

Hori horrela, guztion ardura da esparru batzuetatik zein besteetatik aurre egitea eta aritzea. Gizarte-eredua aldatu behar dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztiak ikusarazteko, kausak aztertzeko eta kausa horiek prebenitu eta ezabatzeko ekintza zehatz eta eraginkorrak abian jartzeko; baita gure egunerokoan horiek justifikatzen edo babesten dituzten egiturak identifikatzeko ere. Erasoak salatzeaz gain, mundu justuago bat, bizigarriago bat, askea, eraikitzeko lanean jarraitu behar dugu, eta horretan, Mugimendu Feminista dugu eredu.

Halaber, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, gogora ekarri nahi dugu indarkeria matxistak beldurrezko eta lotsazko ingurunea sortzen duela, jasaten dutenak

## 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

El 25 de noviembre es un día para mostrar nuestra oposición a todas las formas de violencia contra las mujeres, porque estamos a favor de construir vidas libres, seguras e independientes.

Hace unas semanas, tuvimos conocimiento de otro asesinato machista ocurrido en Zarautz. Este asesinato vuelve a poner sobre la mesa que la violencia machista es un problema de primera magnitud en nuestra sociedad. Una de cada dos mujeres ha sufrido violencia machista a lo largo de su vida, y entre las y los jóvenes, los casos de violencia en las redes suben continuamente, lo que es consecuencia de un sistema patriarcal sólido. El análisis feminista subraya que el sexo-género tiene su origen en las desigualdades estructurales del sistema, y que esta profunda relación de poder afecta a todos los ámbitos y aspectos de la vida.

En este sentido, es responsabilidad de todos/as enfrentarse y actuar desde diferentes ámbitos. Necesitamos cambiar el modelo social para visibilizar todas las manifestaciones de la violencia machista, analizar sus causas y poner en marcha acciones concretas y efectivas para prevenirlas y eliminarlas, así como para identificar las estructuras que las justifican o las apoyan en nuestro día a día. Además de denunciar las agresiones, debemos seguir trabajando en la construcción de un mundo más justo, más habitable, libre, en el que el Movimiento Feminista es un ejemplo.

Asimismo, en este Día Internacional contra la Violencia Machista recordamos que la violencia machista crea un entorno de miedo y vergüenza, tiende a aislar y silenciar a quienes la sufren, y aumenta

bakartzeko eta isilarazteko joera duela, eta biktimagileen zigorgabetasun-sentsazioa areagotzen duela. Izan ere, sarerik ez izateagatik eta komunitatean sustraituta ez egoteagatik, egoera horiek areagotu egiten dira isolatuago egon daitezkeen emakumeen artean, eta horien artean daude, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatuetan daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume migranteak edo beste baldintza bereizle batzuk dituztenak.

la sensación de impunidad de los victimarios. De hecho, la falta de red y la falta de arraigo comunitario aumentan estas situaciones entre las mujeres que pueden estar más aisladas, como son las mujeres mayores, las que se encuentran en entornos rurales dispersos, las mujeres con discapacidad, las mujeres migrantes u con otras condiciones diferenciales.

Komunitateak beste pertsona batzuekin konektatzen gaitu. Horregatik, komunitateak emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezake, eta komunitate feministak, hurbiltasunetik eta sororitatetik, indarkeria jasaten ari diren emakumeak babes ditzake. Komunitateak indartzeko garaian, udalok erantzukizun zuzena dugu: bultzatu egin behar dugu indarkeria matxistaren aurrean erne egongo den, eta hura pairatzen dutenak hartu, integratu eta babestuko dituen bizitza komunitarioa. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako komunitate erreparatzaileak sustatzeko erantzukizuna dugu.

La comunidad nos conecta con otras personas. Por ello, la comunidad puede contribuir a prevenir la violencia machista contra las mujeres, y la comunidad feminista, desde la cercanía y la sororidad, puede apoyar a las mujeres que están sufriendo violencia. A la hora de fortalecer las comunidades, los Ayuntamientos tenemos la responsabilidad directa de impulsar una vida comunitaria que esté alerta ante la violencia machista, y que acoja, integre y proteja a quienes la sufren. También tenemos la responsabilidad de promover comunidades reparadoras para las víctimas de la violencia machista contra las mujeres.

Gauzak horrela, nahitaezkoa da marko berri bat eraiki ahal izateko, aurrekontu eta baliabide teknikoak ahalbidetzea. Izan ere, badakigu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ikuspuntu feministadun berdintasun politikak ezinbestekoak direla, eta hortaz, beharrezkoa dela horri erantzuten dieten baliabideak ematea.

Así las cosas, para poder construir un nuevo marco, es necesario facilitar presupuestos y recursos técnicos. Somos conscientes de que las políticas de igualdad con enfoque feminista son imprescindibles para poder hacer frente a la violencia machista y, por tanto, es necesario dotar de recursos que den respuesta.

Horregatik, Tolosako Udalak honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartu du:

Por ello, el Ayuntamiento de Tolosa se compromete a desarrollar las siguientes actuaciones:

● Tokiko hurbiltasun-sareak indartzea, topaguneak, komunitate-jarduerak eta tokiko elkarteen bizitasuna zainduz, pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaurgarrienak konektatzeko.

● Fortalecer las redes locales de proximidad, preservando los espacios de encuentro, las actividades comunitarias y la vitalidad de las asociaciones locales para conectar a todas las personas, y en

Horren adibidea da Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

especial a las mujeres y a las chicas más vulnerables. Ejemplo de ello es Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

● Aisialdi-inguruneetan laguntza-sareak sustatzea, honako hauekin konektatzeko: zerbitzu publikoak taldeekin, ostalariekin, elkarteekin eta berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan elkarri laguntzeko ekimenekin.

● Promover redes de apoyo en entornos de ocio, que conecten los servicios públicos con grupos, hosteleros/as, asociaciones e iniciativas de ayuda mutua en el ámbito de la igualdad y la lucha contra la violencia machista.

● Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzen jarraitzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista hutsaltzen edo legitimatzen duten diskurtsoak eta jarrerak desaktibatzeko, bereziki konplizitate matxisten inguruetan.

● Continuar desarrollando campañas de sensibilización y concienciación, para desactivar discursos y actitudes que banalicen o legitimen la violencia machista contra las mujeres, especialmente en entornos de complicidades machistas.

● Indarkeria matxistarekin lotutako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzea, indarkeria gaitzesteko eta biktimekiko elkartasuna adierazteko.

● Promover la movilización ciudadana ante los casos de violencia machista, para la condena de la violencia y la solidaridad con las víctimas.

● Udalaren mendeko jardueren aurrekontuetan ikuspegi feminista txertatzea.

● Incorporar la perspectiva feminista en los presupuestos de las actividades que dependan del ayuntamiento.

● Tokiko emakumeen mugimenduei eta mugimendu feministari laguntzea eta haiekin koordinatzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei haien borrokan babesa emateko jarduerak garatzeko.

● Apoyo y coordinación con los movimientos locales de mujeres y feminista, para el desarrollo de actividades de apoyo a mujeres víctimas de violencia machista en su lucha.

Tolosako Udalak herritarrei dei egiten die Tolosako Asanblada Feministak *KONPLIZITATE SAREEN AURREAN, ERRESISTENTZIA FEMINISTA. ¡VUESTRA HIPOCRESÍA ES VIOLENCIA!* lelopean antolatutako manifestaziora joateko. Azaroaren 25ean izango da, 19:00etan, Trianguloa plazatik abiatuta.

El Ayuntamiento de Tolosa convoca a la ciudadanía a la manifestación organizada por la Asamblea Feminista de Tolosa bajo el lema *KONPLIZITATE SAREEN AURREAN ERRESISTENTZIA FEMINISTA. ¡VUESTRA HIPOCRESÍA ES VIOLENCIA!*, el 25 de noviembre a las 19:00, que partirá de Trianguloa Plaza.